

egunekoa

Belen Fdez de Lezeta Orbiso

(Ebro ibaiaren defentsarako euskal plataformako kidea eta EHNEko abokatua)

Ura: denon ondasuna, denon ardura

Espainiako Plan Hidrologikoari buruzko informazioa, iritziak eta balorazioak barra-barra agertu dira azken hilbeteetan egunkarietan. Ez gara hasiko PHren alde eta kontrako argudioak aztertzen. Lan hori eginda dago dagoeneko: gizartearen sektore askok egin dute eta ikuspegi desberdinetatik, arrazoi desberdinengatik, balorazio negatiboa egin dute. PH hau ez da neutroa, oso negatiboa baizik, eta beraren kontrako argudioak ez dira giza-sektore batzuen kezken islak, unibertsalak baizik:

Lurralde desoreka bultzatuko duen azken 20 urteotako dokumenturik garrantzitsuena da; arlo bakoitzeko ura arloko biztanleek kudeatu behar dute. Orain arte, erabat onartua izan den funtsezko hastapen hau apurtu egin du PHk, trasbase politika ontzat ematen eta justifikatzen. Ura ez berriztagarria den baliabide naturala da eta eskualde-garapen iraunkorraren zerbitzuan erabili behar dela behin eta berriro entzuten dugu; halere, garapen iraunkorrek geure baliabide naturalak erabiltzera (ongi erabiltzera) bultzatzen gaitu, ez beste herrialde eta eskualdeetako baliabide naturalak geure zerbitzuan jartzera. Gure lurraldean garapen ez iraunkorraren zerbitzuan egiten diren ekintzak onartzen ez baditugu, Espainiako Kostaldeko garapen ez iraunkorreko ekintzak (neurri gabeko urbanizazio hoteleroak, turismo kontsumista, esportatzeko negutegietako nekazaritza intentsibo eta kutsagarria, atzeritako nekazaritza langile merkeak enplegatuz...) ezin dugu onartu, geure lurraldetako urarekin egiten bada gainera.

Giza-desoreka handituko duen dokumenturik larriena da, edateko ur behararen argudioa demagogia erabiliz; Ur Legeak ezartzen duenez, ura denon ondasu-

na da. Hala ere, Ur Legearen erreformak onartu du ura erabiltzeko eskubideak saldu eta erosi egiten direla, berriztagarria ez den baliabide ura, komertzioan sartuz. Egun Espainian «*terratienientes*» eta «*aguatenientes*» daude. Nekazaritzako enpresetako jabeek (bankuak eta *agro-business*-eko enpresek), enpresa hotelero handien jabeek... ura erabiltzeko eskubideak erosiko dituzte. Gezurra da nekazariak ur hori euren ustiagi familiarrei eusteko erabiliko dutela; sektore ekonomiko fuertek ura erabiltzeko eskubideak erosiko dituzte eta nekazaritza ez da ekintza ekonomikorik fuertena Espainiako Mediterraneoko kostaldean (askoz gutxiago hemen). Nekazaritza erabiltzen bada ere, zer motatako nekazaritza bultzatuko dute geure Ebroko urarekin? Negutegi handietan egiten dena: esportazioari begira ekoizten duena, nekazaritzako langile merkeak kontratatzen dituen ahoz, paperik gabe eta euren funtsezko eskubideak bermatu gabe. Askotan etorkinak dira, gutxiago kexatzen direlako eta gutxiago kexa daitezkelako, biltzeko eskubiderik gabe, Espainiako estranjeriari buruzko azken legeak onartzen duenez.

Natura desoreka itzulezina ekarriko duen dokumenturik erabakiorrena izango da PH hau. Ur-azpiegitura handiak (Itoizko urtegiko lanak, barne) egiten dituzten enpresen eta energia hidroelektrikoa ekoizten dituzten enpresen interesak justifikatu eta bermatu ditu, Espainiako Gobernakideen kolaboratzaileen ingresuak ziurtatzen, kontratu publikoen bidez enpresa eraikitzaileentzat eta kalte-ordain bidez hidroelektrikoentzat. Gezurra da Ebro ibaian ur «*excedentario*»-ak daudela. Kaliforniako Estatuan badago lege bat, mendietako ibaiak eta errekek babesten dituen. Bere lehenengo artiku-

luan hala dio, ibaiei urtegi abusiboen kontrako babesa eskaintzen: «Itsasora doan ibaiaren urak funtzio bat betetzen du: ibaia izatea». Kalitateko ura ez dago soberan, ez guretzat, ez gure ekosistemak mantentzeko. Europako Batasunak gure ur-ekosistemak hobetzera behartzen gaitu. PH honekin mantendu ere, ez ditugu mantenduko.

Ebro ibaia euskal ibaia da eta Euskal Herriko biztanle gehienok bere urez bizi gara (Zadorra ibaia Ebro arlokoa da eta Bizkaiko biztanle eta industri gehienak Zadorrako urtegietako urez mantendu eta handitzen ari dira, Araban eta Nafarroan zer esan). Arloko osotasunaren kudeaketaren hastapena errespetatuz, geure uren kudeaketari buruzko erabakiak hartzeko ahalmena galdu genuen, eta orain arte Zaragozan, Ebroko Konfederazioan, hartzen dira geure arlo osoko uren erabilpenari buruzko erabakiak. Hemen-dik aurrera, ordea, eta PH horrela onartzen badute Espainiako Gorteetan, Espainiako beste arloko biztanleek erabakiko dute gure arloko uren erabilpenari buruz.

PH honi gure ordezkari politikoei (bai Nafarroakoek, bai EAEkoek) baietza eman zioten Espainiako Uren Kontseiluan. Baietak prezio bat eduki du: ur-horniketa eta ur-garriketa lanak finantzatzeko diruaren truke. Hala ere, herri-lan horiek derrigorrezkoak dira Europako Batasuneko Uren Direktiba-markoaren arabera. PHrekin edo PHrik gabe egin behar ditugu inbertsio horiek. Trukean ur-baliabideak planifikatzen ez dituen PH bat ezin dugu onartu. Horregatik, PH honek ur-baliabideak planifikatzen ez dituelako, talde politiko, sindikal eta sozial askok parte hartzen dugu Ebro Ibaiaren Defentsarako saldu egiten dira.

zutabea

Juan Kruz Lakasta

Gaixo

Aste honetan gaixotu naiz: gorakadak eta zorabioak izan ditut. Medikuek oraindik ez daki zer den. Nik haurdun nagoela uste dut. Diagnostikoak diagnostiko, baja hartu behar izan dut. Eta baja azkenekoz hartu nuen aldiarekin oroitu naiz. Hogeita bat urterekin izan zen, kazetari lanetan hasi berria, oina hautsita. Supituki ohartu naiz bederatzi urte —bederatzi!— daramatzadala jada kazetaritzan, eta nire osasuna —gure Osasuna bezala— ez dela garai batean bezain sendoa. Halaber gogoratu naiz 30 urte bete berri ditudala, eta lagun batek —ni baino zaharragoa den batek, jakina— esaten duela adin horretatik aurrera egunero min berri batekin altxatzen zarela ohetik. Antza, gaixo egoten ohitu beharko dut. Ez dut uste gehiegi kostako zaidanik. Ohean ona naiz. Erran nahi baita, arazorik gabe igaro ditzakedala orduak ohatzean, gustura —ez bestelakorik pentsa—. Eta telebistaren aurrean ez naiz makala. Edozer ikusteko gai naiz. Esaterako, Madril aldean *Gran Hemano-k*, *Anaia Handiak* giltzapaturiko hamabi gazteetatik hiru Francoren alde azaltzen, lotsagabe. Horixe ikusi bainuen aurrekoan. Saioa beste behin soziologia esperimentutzat aurkeztu dute, Espainiako gaztediaren islatzat. Asmatu dutelakoan nago. Espainiako gazteak atzerakoitzen ari direlakoan nago —eta, salbuespen moduan, kasu honetan hego euskal herritarrek espainiarren artean sartuko ditut—, bai eta heldu atzerakoiak armairutik ateratzen ere —eta, tamalez, ez naiz aukera sexualerik ari—. Pantaila txikian ikusitakoa eskuindartze orokor horren erakusle. Eta hortaz ari naizela, ez dakit gazte frankisten aldarrikapenak gaixotu aurretik ala ondotik ikusi nituen... Akaso, aurretik... Mm, berriro gorakadak... Kristo! Portzierto, telediarriean pantailaratutakoaren arabera Jesukristo ez zen margoetan, eskulturetan irudikatu diguten bezalakoa. BBCK bere aurpegia berregin du, eta Julian Lago, *La máquina de la verdad* garai bateko saio zoldazuko aurkezlearen iguala da.

seiko urrea

Emilio Lopez Adan



Pedofiliaz berriz ere

EGUNKARIAN dagoen eztabaidak parada ematen du gaiaz itzultzeko, eta pedofilia zentzu estuan hartuko dugu, hau da jende helduek adin txikikoekin dituzten harreman sexualak. Heinak badira gero. Bada bortizkeriarekin egiten dena, 1996an Belgika astindu zuena bezala: Marc Dutroux-en inguruan haurren prostituzioa, bideo pornografikoak, bortxaketak eta krimenak nahastu ziren; esan gabe doa, denek kondenatu zuten. Gero ere, instituzio batzuek sortu indar-harremanei esker bortxaketak goxoki egiten ahal dira, 1995ean Hans Hermann Groër, Viena-ko artzapezpikua, desmisionatzera era-

man zuen aferan bezala; kasu horietan, akusatuek, bere defentsarako, zera diote, ez direla haurren baliatzeko edo bortxatzeko ari, baizik eta amodioaz eta haien iratzartzeko eta balakatzeko.

Horrek atea irekitzen dio azken pedofilia motari, haur edo gazteen askatasuna begiratzeko egiten omen denari. Aurren, gai horretaz eztabaida sakona izan da Frantziar, Daniel Cohn-Benditen liburu zahar baten pasarteak berpiztuak eta baliatuak izan direnean. 1968ko protagonisten artean, haurren sexualitatea gai mingarria izan zen: askatasuna heldur, denek onartu zuten haurren arteko sexualitatea naturala zela, baina gu-

txiengo bat baizik ez zen ausartu haurren sexualitatea iratzartzeko jende helduek harreman sexual errealek praktikatzen behar zituztela defendatzera.

Geroztik, Dutroux eta Groër bezalako aferak gertatu dira, gaiak argi zabalean mintzatu da eta sentsibilitate morala findu. Gaur, ezin da 1968aren izpiritu askatzailea inbokatu adin txikikoekin harreman sexualak justifikatzeko. Bada, noski, moral kontserbadorea itzultzeko arriskua, eta haurren sexualitate naturalaren lekua gerizatu beharko da. Berriz, guztiz nabaria da helduen eta adin txikikoekin artean ez dagoela berdintasunik batere; indar fisiko eta sozialak eta heldutasun psikiko eta sexualak desberdinak eta hierarkizatuak izanik, bien arteko edozein harreman sexualak abusu izateko gaitasuna badu. Biktimak eta ondorio latzak ezagunak dira. Ikuspegi sasiaurrerakoien garaia bururatu da eta pedofilia aktibo askatzailerik ez dago.

kornerra

Mikel Elorza

Isurketak

George Bushek erabaki du EEBBek ez dutela aintzat hartuko Kiotoko goi bileran erabakitakoa eta gas isurketak maila *txukunarekin* segituko dutela, murrizketarik gabe. Pentsatuko du, barka, okurrutuko zaio Texasko zeru urdina garbi askoa dela, eta ez dela hainbesteko izango. Europarrak beti izan direla epelak eta ekologista, komunista eta beste hainbat *-ista* malapartaturen malko isurketek amore aise ematen dietela. Litekeena da halakorik izatea buruan, edo agian ez. Azken batean, gure *cowboy*-a baino gehiago, industria, dirua dago erabakiaren atzean (kapitala, lehen esaten genuen moduan; hura ez baita aldatu, izatekotan gu!). Alegia, Gorek ez zuela kontrakoa esango. Eta inportanteena: batek edo besteak erabakita, funtsean inportantzia daukana da planeta izorratzen segituko dutela.